



2DEO SERIEAK 2025

1- AURKEZPENA

2deo SERIEAK Tabakalerako ikus-entzunezko laborategiak sustatutako mentoretza programa da, EITB eta Donostia Zinemaldiarekin elkarlanean, sortzaile berriek sustatutako telesail proiektu berritzaileak garatzeko.

Programaren helburua aukeratutako proiektuen kalitatea eta bideragarritasuna azpimarratzea da. Hau da, talentu berrien lehen telesail proiektuak sustatzea sortzaile, gidoilari, zuzendari eta/edo ekoizle berriei laguntza eta babesa emanez.

Tabakalerako ikus-entzunezko laborategiak, Donostia Zinemaldiarekin eta EITBrekin elkarlanean, ikus-entzunezko sektorearen garapena bultzatu eta sorkuntza laguntzea du helburu, arreta berezia jarriz euskarazko sorkuntzan, berrikuntza edo esperimendazio formalan eta EAEko talentu berrien bilaketan.

2. PROGRAMA

2deo SERIEAK mentoretza-programak talentu berriak bultzatu nahi ditu, telesail-proiektu berritzaileen aldeko apustua egin dezaten, edozein formatu eta generokoa, nazioarteko anbizioarekin, arreta berezia eskainiz plataforma digitalei eta euskarazko ekoizpenarekiko interes bereziarekin.

Deialdiaren bidez **hiru proiektu** aukeratuko dira, **gutxienez bi euskaraz edo elebidunak**, eta horiek izango dira mentoretzaren xedea.

Programan zehar, aukeratutako sortzaileek **dosier sendo bat, biblia eta telesailaren gidoia landuko dute** mentoreen laguntzarekin, eta ondoren ekoizle, banatzaile edo inbertitzaileekin partekatuko dute, bereziki plataforma eta telebista-kateekin.



Otsailetik maiatzera bitartean aurrez aurreko eta online saioak antolatuko dira, non **talde bakoitzak gidoiaren idazketa, ekoiztetxe bilaketa eta proiektu bakoitzaren banaketa estrategia eta eszenaratzea jorratuko dituen.**

2DEO SERIEAK mentoretza programak honako hau eskaintzen du:

- **Industriako profesional ezagunen aholkularitza**, ad-hoc proiektu bakoitzerako.

Adibide bezala, aurreko edizioetan parte hartu duten tutoreak hauek izan dira: Laura Sarmiento, Xabier Berzosa, Anna R. Costa, Koldo Almandoz, Marian Fernandez eta Aitor Gabilondo.

- **Formakuntza:** Lantegi desberdinak otsailetik aurrera: Gidoi idazketa, narratiba berriak, ikus-entzunezko produkzio-ereduak eta eduki-plataformetan prestakuntza, besteak beste.

- **Garapenerako laguntza:** Bi zatitan banatuko diren 4.000 euro proiektuko, lehen zatia otsailan, proiektuak aukeratu ondoren, eta bigarrena programa amaitzean, Tabakalerarekin itxiera memoria partekatzean.

- **Proiektu aurkezpenak eta ekoiztetxe bilaketa.**

Programan zehar, proiektua garatzeko ekoiztetxeen bilaketa landuko da.

2025eko maiatzan proiektuaren aurkezpena antolatuko da euskal sektorearen aurrean Tabakalerako ikus-entzunezko laborategian.

2025ko irailean, hiru proiektuek Donostia Zinemaldiko Industria atalean parte hartuko dute. Hau da, Donostia Zinemaldian zehar, hiru sortzaileek akreditazioa izango dute Zinema-areto eta -saio guztietara, publikoari irekitako eta akreditatutako instalazioetara eta agenda profesionaleko jardueretara sartu ahal izateko eta industria atalean proiektuan parte hartu nahi duten profesionalekin hitzorduak izateko ere.

**- Proiektu bat ekoizteko aukera:**

EITBk maiatzeko aurkezpenean eta Donostia Zinemaldiko Industria sailean parte hartuko du. Aurkeztutako proiektuen artean EITBk bere interesekoren bat topatuz gero, egitasmo horri gehienez 150.000 €-ko ekarpena egiteko konpromisoa hartzen du, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- egoitza soziala EAEn duen produkzio-etxe batek bultzatzea.
- talentu sortzailea euskalduna izatea.
- EUSKARAZKO fikzio-proiektu seriatua izatea:

- 16 eta 25 urte bitarteko publikoarentzat.
- Ahalik eta gazte gehienengana iristeko eta haien arreta lortzeko anbizioarekin.
- Gutxienez 15'ko 6 kap. edo 22'ko 4 kap. izatea.

3- PARTE-HARTZAILEAK

Programa telesail-proiektu sortzaile berriei dago zuzenduta. Hau da, proiektuaren gidoilaria izango da beti eskatzailea.

Sorkuntza taldeak ere aurkeztu daitezke. Hauek dira taldea osatzeko aukerak:

- Proiektuaren gidoilaria edo bi gidoilari.
- Proiektuaren gidoilaria eta zuzendaria.
- Proiektuaren gidoilaria eta ekoizlea.
- Proiektuaren gidoilaria, zuzendaria eta ekoizlea.

Deialdian pertsona fisikoek hartu ahal dute parte modu indibidualean, deialdi honetan jasotako baldintzekin bat. Halaber, deialdian 2 edo 3 pertsona fisikok hartu ahal dute parte elkarrekin; kasu horretan, Tabakaleraren aurrean proiektuaren ordezkaria izango den pertsona bat izendatu edo identifikatu beharko da, ondorio guztietarako.

Eskatzaile bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahalko du.



4- DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA

Proiektuak jasotzeko deialdia azaroaren 19tik abenduaren 30ra arte egongo da irekita (eguerdiko 12:00etan ireki eta itxiko da).

Urtarrilaren 30ean jakinaraziko dira programan parte hartzeko hautatutako hiru proiektuak.

Proiektuak hautatzeko balorazio-batzorde bat osatuko da, Tabakalera, EITB eta Donostia Zinemaldiko ordezkariak osatua.

Hautaketa-prozesuan, batzordeak hautagaietako batzuk elkarrizketatu ahal izango ditu.

Proiektuaren kalitatea eta sormena lehenetsiko dira, baita egingarritasuna ere. Era berean, ikuspegi berritzailea proposatzen duen proiektuak baloratuko dira.

Izena emateko, online inprimakia bete, txosten bat eta kapitulu piloaren gidoia erantsi behar da PDF formatuan.

Ezinbestekoa da parte-hartzaileak deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea.

5- IZEN-EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKOAK

Izena emateko:

1. Online galdetegia bete eta eskatzailearen NANaren kopia eta bizileku-ziurtagiria igo.

2. Proiektuaren txostena erantsi, honako atal hauekin:

- Proiektuaren fitxa teknikoa.
 - Izenburua
 - Tagline
 - Formatua: denboraldiak, kapituluak.



- Iraupena
 - Generoa
 - Hizkuntza
 - Baieztatutako ekipoa
 - Publiko mota
-
- Proiektuaren sinopsia.
 - Pertsonaien deskribapena.
 - Trama-mapa.
 - Asmo-gutuna.
 - Estetika eta estiloa: erreferentziak, estekak, argazkiak, audioa, vimeorako estekak, etab.
 - Biofilmografia: Sortzailearen (eta taldearen) ibilbide akademiko eta profesionalaren deskribapen laburra.
 - Sortzailearen (eta taldearen) aurreko lanak VIMEO bidez.

3. Kapitulu pilotoaren gidoia erantsi PDF formatuan.

PDFak gehienez 10 orrialde eta aipatutako atal guztiak izan beharko ditu. Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.

6- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkeztzen diren parte-hartzaileek honako baldintza eta konpromisoak bete beharko dituzte:

- Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- GS-kiko betebeharrak egunean izatea.
- Ez egotea zigortuta laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzarekin, ez penalki, ez administratiboki, ezta horretarako desgaitzen duen legezko lege-debekuren baten pean ere.
- Tabakaleran egindako lanak erabili ahal izango ditu deialdiaren xede den programaren, edukiaren eta emaitzen berri eman eta herritarren esku jartzeko.



- Deialdi honetako epeak betetzen ez badira, arrazoi gabe, emandako laguntzak eten ahal izango dira, eta hala badagokio, jasotako laguntzak itzuli beharko ditu.
- Deialdi honetan sortutako ikus-entzunezko lanen banaketan eta aurkezpen publikoetan, Tabakaleraren parte-hartzea aipatuko da. Horretarako, beren markak, logoak eta izen komertzialak erabiliko dira (adibidez, kredituetan).
- Tabakalerako espazioak erabiltzeko arauak errespetatuko dira.
- Tabakalerak eskubidea izango du proiektu guztietako ordezkarien parte-hartzea berrikusi, eta, beharrezkoa bada, proiektua edozein momentutan azkentzeko.
- Diru-laguntza jaso ondoren programatik kanpo geratzen diren parte-hartzaileek laguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko dute.

7- JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaile eta/edo ordezkari guztiek bermatuko dute deialdi honen harira aurkezten diren proiektu, dokumentu eta ikus-entzunezko material guztiak, baita, hautatuak izanez gero, deialdi honetan parte hartu bitartean sortzen diren elementu guztiak ere, originalak direla eta ez dituztela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak.

Oinarri hauek onartuz gero, hautatutako parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak baimena ematen diote Tabakalerari jaso dituen edo laborategiko proiektuak gauzatzeko prozesuan sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko material guztiak egun ezagutzen ditugun euskarri mota guztietan erabiltzeko, betiere xede bakarra izanik deialdia, haren edukia eta haren emaitzak herritarrei jakinaraztea eta haientzat eskuragarri jartzea, edozein kanalen bidez eta doan. Ondorioz, Tabakalerak eskubidea izango du eduki hori ikusgai jarri eta publikoki komunikatzeko, edozein kanalen bidez, izan proiektua gauzatu bitartean, izan hura bukatu ondoren, epemugarik gabe.



Esandako guztiak ez du eraginik izango autorearen eskubide moraletan, ezta gorago aipatutako dokumentuei eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialei dagokien jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasunean; horiek materiala sortu duten parte-hartzaileen eta/edo ordezkarien esku egoten jarraituko dute.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkari bakoitzak Tabakaleraren aurrean erantzun beharko die hirugarrenek jabetza intelektualari buruz jar ditzaketen erreklamazio guztiei, honako hauei dagokienez: (i) deialdi honen harira aurkeztutako proiektuak, dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak eta (ii) hautatuak izatekotan deialdian parte hartu bitartean sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak; hala, Tabakalerari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontzeptu horiei dagokienez egon litezkeen erreklamazioen harira sortutako kalte eta galera guztiengatik.

Halaber, eta Tabakaleraren markak, logoak eta izena ustiatzeko lizentzia emango die hautatutako parte-hartzaile edo ordezkariari. Lizentzia hori ez-esklusiboa, doakoa eta besterenezina izango da, eta proiektuen testuinguruan sortzen diren ikus-entzunezko lanak banatzeko eta zabaltzeko aurkezpenetan baino ezingo da erabili.

8- DATUEN BABESA

Parte-hartzailei edo ordezkariari jakinarazten zaie oinarri hauek onartuz gero, baimena ematen diotela Tabakalerari eskaera aurkezten den unean eta, hautatuak izatekotan, deialdian parte hartzen duten bitartean emandako datu pertsonalak tratatzeko, eskaera izapidetu eta kudeatu eta berau zabaltzeko lanak egin ditzan.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie legez derrigorrezkoa bada. Halaber, deialdian parte hartzeko hautatuak izan diren parte-hartzaile edo ordezkarien irudia eta izenak Tabakaleraren webgunearen bidez edo Tabakalerak bere jardueren berri emateko erabiltzen dituen euskarri ukigarri edo ukiezinen bidez helarazi ahaliko zaizkie hirugarrenei, 10. oinarrian ezarritakoarekin bat eginez.



Testuinguru honetan, jakinarazten da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela; ondorioz, datu horiek ematen ez badira, laguntza publikoa jasotzeko eskaera ez da aintzat hartuko eta eskatzaileak ezingo du proiektuan parte hartu.

Tabakalerak hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, deialdian izango duten parte-hartzea kudeatzeko eta lege-betekizunak betetzeko beharrezkoa den epean baino ez ditu gordeko parte-hartzaile edo ordezkarien datuak.

Edonola ere, parte-hartzaileei jakinarazten zaie eskubidea dutela (i) Tabakalerari eskatzeko beren datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, beste norabait eramateko edo datuen tratamenduari uko egiteko; horretarako, idatzizko eskaera bat bidali beharko diote Tabakalerari, pribatutasuna@tabakalera.eus helbide elektronikora, gaia "2de serieak 2025" delarik eta datuen titularrak sinatutako gutun bat erantsita (jakinarazpenetarako helbidea adierazi beharko da) eta NANaren kopia batekin. Horrez gain, eskubidea dute (ii) Datuen Babeserako Espainiako Agentzian edo eskumeneko beste edozein kontrol-agintaritzatan erreklamazio bat aurkezteko, bereziki beren eskubideak errespetatu ez direnean.

9- PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuz gero, deialdi honetan parte hartzeko hautatuak diren parte-hartzaileek edo ordezkariak berariaz ematen diote baimena Tabakalerari (i) beharrezko bitarteko teknikoen bidez (argazkiak, bideoak, etab.) proiektuan izan duten parte-hartzea erregistratzeko, parte-hartze hori Tabakaleraren espazioetan egiten denean eta (ii) irudi horiek eta beren izena Tabakaleraren webgunean eta/edo beste edozein euskarri ukigarri edo ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko, herritarrei deialdi honen xedea, edukia eta emaitzak ezagutarazi eta horiek gizartearen esku jartzeko.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkariak jakinarazten zaie edozein unetan dutela baimen hori kentzeko aukera.

TABAKALERA



10- OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, bertara aurkezteagatik bakarrik, onartu egingo dituzte oinarri hauek. Eskaeran informazioren bat falta bada, partehartzaileak deialditik kanpo geldituko dira.

Antolatzailea:

TABAKALERA



Elkarlanean gauzatutako egitasmoa:



**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**

**INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE**

tabakalera.eus